

## **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Gure bezeroekaz erlazio fidela sortu nahi dogu. Hori lortzeko, gure produktuaren erabiltzaileei aholku teknikoak emango deutseguz bai telefonaz bai gure web orrialdean “Gurekin kontaktatu” atalean eskainiko dogun online txat baten bitartez. Horrela, leialagoa dan eta konfiantzan oinarritutako harreman bat lortuko geunke. Horrez gain, kantitate batetik gora kontsumitzen dabezan pertsonak deskontuak eukingo dabez. Horregaz kontsumitzaileek gure produktua erosteko pizgarri bat izango dabe. Bestalde, gure produktuaren inguruan kontsumitzaileek produktua eta emandako zerbitzuaren inguruko ze iritzi daben jakiteko, hautazko inkestak egitea erabaki dogu.